

(Bideoa) Parte Zaharreko sagardotegi zaharren historia bertsoan kontatu du Unai Gaztelumendik

by Nerea Lizarralde on 2013/09/15 in AISIA, LAGUNTZAILEAK

Unai Gaztelumendi bertsolariak Parte Zaharreko sagardotegi zaharren historia kontatu du bertsoan. Konstituzio plazan ospatu duten Kizki Eguna dela eta, bisita gidatua egin dute auzoan zehar. Udal Txistulariekin batera abiatu dira Fermin Kalbeton kaleruntz. Egosari tabernan gelditu dira lehendabizi. Sagardotegia zena 1983an itxi zutela azaldu du bertsoan Unai Gaztelumendik. Eta sagardotegia beheko pisuan zegoela ekarri du gogora, goiko pisuan ikaztegi bat baitzegoen.

Ondoren Ikatz kalera joan dira. Kortadi aroztegi eta sarraila dendan gelditu dira, eta bisitan parte hartu dutenei, sagardotegi izandako lokala ikusten utzi diete. Hiru belaunaldiz egon zen bizirik sagardotegia. Handik metro gutxira, sagardotegi izandako beste toki bat erakutsi dute: Arrano Beltza elkartearen Barruan, paretan zintzilik dauden zenbait argazki gogora ekartzen dute leku honen iragana: hainbat pertsona agertzen dira irudietan, kupelaren inguruan.



Egosari taberna. (Argazkia: Nerea Lizarralde)



Egosari taberna. (Argazkia: Nerea Lizarralde)



Udal Txistulariak. (Argazkia: Nerea Lizarralde)



Kortadi aroztegia Ikatz kalean. (Argazkia: Nerea Lizarralde)



Kortadi aroztegia. (Argazkia: Nerea Lizarralde)



Arrano Beltza elkartearen Barruan. (Argazkia: Nerea Lizarralde)



Argazki zahar bat Arrano Beltza elkartearen barruan. (Argazkia: Nerea Lizarralde)



Txistulariak Arrano Beltza elkartearen barruan. (Argazkia: Nerea Lizarralde)

arrano beltza, bertsolariak, donostia, egosari, historia, kizki eguna, kortadi, Sagardoa, sagardotegi, Unai Gaztelumendi

< V. Kizki Eguna iruditan

Sagardoaren kulturaren murgildu dira donostiarrak >

Profile

Sign in with Twitter Sign in with Facebook
or